

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4824

2336/2024 EBAZPENA, irailaren 30ekoa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Nagore Gallego González andrea Ampuero 1 unitate asistentzialeko Erizaintzako Gainbegirale kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan.

1500/2021 Ebazpenaren bidez, Nagore Gallego González andrea Ampuero 1 unitate asistentzialeko Erizaintzako Gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, zuzendari-gerente honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Nagore Gallego González andrea Ampuero 1 unitateko asistentzialeko Erizaintzako Gainbegirale kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko ESlan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko irailaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bilbao-Basurtoko ESlari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2024ko irailaren 30a.

Bilbao-Basurtoko ESlko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.